

11. AKTA

2002ko urriaren 28an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

NON: Pasaiako Hirian eta Pasai Antxoko Kultur Etxean.

DATA: Bi mila eta biko urriaren hogeita zortzian.

ETORRIAK: Joseba Xabier Portugal Arteaga j.

Ricardo del Pozo Gil de Albornoz j. eta

Obdu Lorenzo de Dios a.

Lehendakaria: Juan Carlos Alduntzin Alkate jauna.

Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian eta lehenengo deialdian bildu dira goian aipatu zinegotziak, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari jauna bertan delarik, deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ez du agertu ezin etorria Anjel Ouviña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez eratzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 17:30etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeko.

1.- 2002ko irailaren 16ko aurreko akta, 10.a, irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen den akta, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du bere osoan ontzat eman eta dagokion Akta Liburuan jasotzea.

OGASUNA

2.- Kontu-fakturen 10/02 zerrenda.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea 10/02 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, baina aipatu zerrendatik at geratu dira 1732-2002, 1638-1-2002 eta 1638-2-2002 fakturak, eta beraz zenbatekoa 232.776,66 eurokoa da.

KONTRATAZIOA

3.- “Arizabalo Jauregia Berrabiltzea-lehenengo fasea, San Joan kalea, 19” obraren 6. eta 8. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

6 eta 8 zenbakia.

Obra: “Arizabalo Jauregia Berrabiltzea-lehenengo fasea, San Joan kalea, 19”.

Obra Zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia jauna (Udal Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea).

TECPROPASA EUSKADI, S.A. (TEUSA) ETA CONSTRUCCIONES J. URRACA, S.A., (U.T.E. ARIZABALO) enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMABI ZENTIMO (74.804,72 euro) eta HOGEITA ZORTZI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HAMABOST ETA ZAZPI ZENTIMO (28.435,07 euro), hurrenez hurren.

Hurrenez hurren D-1624/02 eta 1483/01 disposamenduaren kargura.

4.- “Antxo Iparraldea 01 Hiri Area C-7 Zonaldea) berriro urbanizatzea” obraren 2. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du hurrengo ziurtagiria ontzat ematea:

2 zenbakia.

Obra: “Antxo Iparraldea 01 Hiri Area C-7 Zonaldea) berriro urbanizatzea”.

Obra Zuzendariak: Jose M^a Irazusta j. (Udal Aparejadorea), Igor Urrutia j. (Asmatu) eta Juan Karlos Lapazaran j. (Arkitektoa).

URBYCOLAN, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: LAUROGEITA BI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA 09 ZENTIMO (82.795,09 euro).

GIZARTE ZERBITZUAK

5.- Gizarte Larrialdiko Diru Laguntzak aldatzea.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2002ko 19 eta 30ean aurkeztutako proposamenak Gizarte Larrialdiko Diru Laguntzak Aldatzeko, biak 3/02 zka. daraman proposamenari buruzkoak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

**ETA
EZ**



LEHENENGO.- 3/02 proposamenari dagozkion Diru Laguntzak, 2002ko uztailaren 29ko batzarraldian onartuak, aldatzea, dagozkien espedienteetako onuradunenak eta agertzen diren arrazoiengatik, berorietan agertzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu partidak atzera Gizarte Larrialdira itzultzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzako Sailari ematea.

SUBENTZIOAK.

6.- Trintxerpe K. E.-ri subentzioa 75. urteurrena dela eta.

2002ko uztailaren 8ko idazkiaren bidez Kirol Patronatuko Lehendakariaren proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- TRINTXERPE K. E.-ri 165,81 euroko subentzioa ematea bere 75. urteurrena dela eta, aipatu laguntzaren lehen zatitzat.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari jakitera ematea legezkiokkeen errekurtsioak seinalatuz.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 06-481-452-10-01 partidaren eta A-911/02 Baimenduaren kargura.

7.- Trintxerpe K. A.-ri Aparteko Subentzioa.

Ikusirik Mountain Bike-ko 2 proba antolatzeko bere jarduerak subentzionatzeko Trintxerpe K.A.-ren eskaera.

Kontuan izanik aurrekoaren antzeko subentzio bat onartu zela 2001 urterako 2001ko urriaren 8ko Gobernu Batzordean, zeinen guztizko abonua eta zehazki bere bigarren zatia, laguntzaren %20, entitate eskatzaileak aurrez memoria bat aurkeztu beharra zegoenez subentzionatutako jardueri buruz.

**ETA
EZ**



Kontuan izanik gaurko eskatzaileek oraindik ez dutela aipatu memoria aurkeztu, eta Udalak behin baino gehiagotan eskatu diela, azkeneko aldiz aurtengo urriaren 4an.

Ikusirik Kirol eta Gazteriako Teknikariak 2002ko urriaren 11an emandako txostena, Gobernu Batzordeak bertako zinegtzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Trintxerpe Klub Atletikoari Mountain Bike-ko 2 proba antolatzeko emandako subentzioaren %20 ez abonatzea 2001eko ekitaldia, aipatu jarduera justifikatzen duen memoria aurkeztu ez dutelako.

BIGARREN.- Arrazoi beragatik 2002rako subentzioa ere ez ematea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiekeen errekursoak seinalatuz.

8.- S.C.R.D. Itsasmendiri subentzioa.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboak 2002ko irailaren 19ko diktamenean egindako proposamenez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- S.C.R.D. Itsasmendiri 516,87 euroko subentzioa ematea gazteentzat sukaldaritzako ikastaroa emateko.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legezkiekeen errekursoak seinalatuz.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1165/02 Baimenduaren kargura.

9.- “A Pabela Productions”-i subentzioa.

Gai hau mahai gainean geratu da.

10.- Euskara ikasten ari diren pasaitarrei subentzioak.

Euskarako Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariak 2002ko abuztuaren 6an egindako proposamenez, eta 1992ko ekainaren 1ean Gobernu Batzordeak hartutako akordioaren arabera, zeinen bidez onartu baitziren subentzio horiek emateko kriterioak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Euskara ikasten ari diren hurrengo pasaitarrei ondoren aipatzen diren subentzioak ematea:

- LEGORBURU TORRE, PATRIZIA	112,69 Euro
- FERNANDEZ GONZALO, ANA	77,64 Euro
- OTERO SUAREZ, SERGIO	78,25 Euro
- EGIDO CORTES, ITZIAR	78,25 Euro
- CASADO ITURRIA, AINHOA	110,50 Euro
- GONZALEZ PRADA, FKO. JABIER	147,25 Euro
- GONZALEZ PRADA, FKO. JABIER	69,00 Euro
- BADIOLA RUBIO, M ^a BEGOÑA	70,99 Euro
- LOPEZ MESA, ANA BELEN	140,25 Euro
- ROJAS PEREZ, M ^a KARMEN	70,99 Euro
- HIGUERO BARANDALLA, M ^a TERESA	113,50 Euro
- LORENZO DE DIOS, MERCEDES	141,99 Euro
- GARCIA MARTIKORENA, JUAN JOSE	66,56 Euro
- PEREZ BERRUETA, GEMA	48,21 Euro

GUZTIRA	1.326,07 euro
---------	---------------

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioak seinalatuz.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1131/02 Baimenduaren kargura.

11.- Itsastarrak-i subentzioa.

Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariak 2002ko urriaren 8ko idazkiaren bidez egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- ITSASTARRAKi 180 euroko subentzinoa ematea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioak seinalatuz.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1302/02 Baimenduaren kargura.

HIRIGINTZA

12.- San Joan kaleko 29-31ko Jabekideen subentzio-eskaera.

Gai hau mahai gainean geratu da.

13.- Zarata dela eta Zigor espedienteak. Eroski, S.Coop. Blas de Lezo kalean.

Gai hau mahai gainean geratu da.

14.- Villa Ana Mary-ren Konpentsazio Proiektuaren dokumentazio osagarria onartzea.

Gertaturik Gobernu Batzordeak 2002ko uztailaren 29an behin betiko onartu zuela Villa Ana Mary-ren Konpentsazio Proiektua 2.08.06.

Kontuan izanik Donostiako 5 zenbakia daraman Jabetza Erregistratzaileak Udal honi jakin arazi ziola aipatu dokumentua Jabetza Erregistroan inskribatzeko orduan jakinaraziak izan ziren hainbat oker zeudela eta zehazki mugarriak falta direla finka batzuetan, hipoteka bat kantzelatzea ere bai zatiezinezko hainbat ondasunen kasuan partizipazio-portzentajea ere falta dela.

Aipatu okerren berri emanik proiektuaren egilea den Elena Etxegoien Gaztelumendi, honek dokumentu osagarri bat aurkeztu du irailaren 24ean aurreko okerrak zuzenduz.

Ikusirik Udal Teknikariak luzatutako aldeko txostena, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Hirigintzako teknikariaren proposamenez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Villa Ana Mari 2.08.06 Exekuzio Unitatearen Konpentsazio Proiektuaren dokumentu osagarria, Elena Etxegoien Gaztelumendi andreak egindakoa onartzea.

**ETA
EZ**



BIGARREN.- Jabetza Erregistroan Konpentsazio Proiektuaren eta dokumentazio osagarriaren inskripzioa eskatzea.

HIRUGARREN.- Ebazpen honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioak adieraziz.

ONDARE ERREKLAMAZIOAK

15.- Hainbat erreklamazio ondare-erantzukizunari buruz.

A) Laura Martínez Guardia andreak formulatutako erreklamazioa.

Ikusirik Arrandegi kalean motoan zihoala irristaldia izan zuela eta LAURA MARTINEZ GUARDIA andreak egin ondare-erreklamazioaren eskaera, non erreklamatzailerak inputatzen dion zonalde horretan zakarrak biltzen ibili zen kamioiak olioia bota zuela.

Ikusirik Udaltzaingoaren Behin-behineko Buruak 2002ko irailaren 9an luzatutako txostena non esaten baitu etxeko zaborra biltzeko Udal Zerbitzuen arduradunarekin kontaktuan jarri ondoren, honek esan ziola egun hartan zabor-bilketako kamioia ez zela pasa handik eta beraz ezinezkoa dela eskatzaileak Arrandegi kalean zegoen aipatu olioia etxeetako zaborra biltzeko kamioiarena izatea, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Laura Martínez Guardia andreak egindako erreklamazioa gaitzestea ulertzen delako gertatuen eta etxeetako zaborra biltzeko kamioiaren artean ez dagoela lotgune kausalik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiekeen errekurtsioak aditzera emanaz.

B) Zezen bengala batek eragindako kalteak Cía Seguros Ocasok erreklamatzeko.

ETA
EZ



Ikusirik Cía Seguros Ocasok Rosa Ayuso Lariz andre aseguruaren izenean egindako erreklamazioa zezensuzkoaren bengala batek aipatu aseguruaren balkoian eragindako kalteak direla, kalteak, dirudienez, kamping-aulki bat erretzea izanik.

Kontuan izanik ez dela kreditatu inolako fakturaz eta ezta inolako beste dokumentutan 55,91 euroko kalte-ordaina, Gobernu Batzordeak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Erreklamazioa gaitzestea kalteak ez direla behar bezala kreditatu ulertzen delako.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioak seinalatuz.

C) Teofila Manzanal Lastra andreak formulaturiko erreklamazioa 2002ko otsailaren 14an izandako erorketa dela eta.

Ikusirik TEOPFILA MANZANAL LASTRA andreak tartekaturiko erreposizio errekurtsioa 2002ko uztailaren 29ko Gobernu Batzordearen akordioaren aurka, zeinen bidez erabaki baitzen berak egindako erreklamazioa gaitzestea, urte bereko otsailaren 14an ustez izan zuen erorketa dela eta Pasaiako udalerrri honetan Motor Diesel enpresaren parean Portuko Zonan jarrita zeuden bi hesiri lotuta zegoen balizamenturako zinta batekin, erorketagarik 4.305,08 euro erreklamatzeko dituelarik.

Kontuan izanik aipatu errekurtsioan alegatzen dela zauritua ez zela erorketaren erantzulea baizik eta oinez egoki zihoala oinezkoen bidean non aurkitzen zen balizamentu zinta. Halaber proposatzen da Udalak identifika dezala frogagiritzat Motor Diesel enpresaren aurrean zeuden barraken titularra lekuko bezala deklarazioa hartzeko.

Kontuan izanik aipatu erreposizio errekurtsioan ez dela aldatu errekurritua izan den ebazpena, zeren eta ez baita esplikatzen zein den erreklamatzaileraren erorketa bultzatu zuen arrazoia eta konstaturik bere egunean erantsirik bidali zituen krokisetan berak adierazten zuela balizamenturako zintak ibilbidearen sentiduan zeudela lerrotatuak eta beraz erorketa gerta zedin era edo modu bakarria bidea gurutzatu nahi izeta izan behar zuela, Udaltzainburuak txostenean dioen bezala.

Kontuan izanik eskatu den froga ez dela bidezkoa eta ezta beharrezkoa ere, zeren eta espedientearen agertzen duen bezala, bere egunean saiatu zela barrakak muntatzen ari zen pertsona lokalizatzea eta ezinezkoa gertatu zela, nahiz eta Udalak beharrezko jesterio guztiak egin zituela bera lokalizatzeko.

**ETA
EZ**



Bestalde, aipatu froga ez litzateke beharrezkoa izango zeren eta erreklamatzailerak ez baititu alegatzen erorketan administrazioaren ondare erantzukizuna ondorioztatu litzazketen egintzak.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Teofila Manzanal Lastra andreak tartekaturiko erreposizio errekurtsua gaitzetsi eta 2002ko uztailaren 29ko ebazpena bere puntu guztietan berronesta.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsuak direla eta.

D) Carmen Graña Lamela andreak egin erreklamazioa Euskadi etorbideko 21ean erorketa izan zuelako.

Ikusirik KARMEN GRAÑA LAMELA andreak egin erreklamazioa Pasaia udalerrri honetako 21ean erori eta izan zituen zauriak direla eta, baldosa batzuk falta zitzaizkion zuhaitz-txorko batean zapaldu eta erori zelako.

Ikusirik 2002ko irailaren 19an Udaltzaingoak begiz egindako inspeksioaren akta, non konstarazten den espaloia egoera ezin hobean dagoela eta behar hainbat zabalera baduela zuhaitz-txorkoaren omndora joan beharrik gabe (hain zuzen ere 280 cm txorkoaren eta murruren artean eta 240 cm txorkoaren beste aldetik galtzada bitartean) txostenean agertzen diren argazkiak ikusita.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Egindako erreklamazioa gaitzestea zeren eta erreklamatzailerak bai baitzuen behar hainbat espazio txorkoaren gainean ibili gabe igarotzeko, txorkoa ez delako leku egokia igarotzeko.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsuak jakitera emanez.

E) Javier González Moreno jaunak egindako erreklamazioa Eskalantegi kaleko 76an erorita.

ETA
EZ



Ikusirik JAVIER GONZALEZ MORENO jaunak egindako erreklamazioa 2002ko irailaren 7an 7693 BMY matrikula duen ibilgailuaren gurpila hausteagatik Eskalantegi kaleko 76 zenbakiaren parean, Luzuriagan egindako parkingean lurrean hodi metaliko bat nabarmentzen zelako, 98,70 euro erreklamatu.

Ikusirik Udaltzaingoaren txostena 2002ko urriaren 3koa, non konstarazten baita hodi puska bat dagoela erreklamatuak bidalitako argazkian agertzen den bezala, autoen gurpilentzat arrisku larria izanik.

Ikusirik halaber 2002ko urriaren 15ean Obra eta Zerbitzuen Departamenduak emandako txostena, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Eskaera ontzat eman eta Javier González Moreno jaunari 60 euro ordaintzea salmentako balioz.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

F) Teresa Zurro Fernández andreak egindako erreklamazioa Azkuene kaleko 2an txorkoko zuhaitzaren oina estaltzen duen baldosarekin estropozo egin eta erorita.

Ikusirik TERESA ZURRO FERNÁNDEZ andreak egindako erreklamazioa Pasaia udalerrri honetako Azkuene kaleko 2an izandako erorketa dela eta.

Ikusirik Udaltzaingoak 2002ko urriaren 9an luzatutako diligentzia eta baita 2002ko urriaren 4an begiz egindako inspektzioaren akta-txostena, non konstarazten den txorkoa egoera onean aurkitzen dela, ez zaiola falta batere piezarik ezta inolako okerrik ere eta non adierazten den 40 cm daudela txorkoaren ertzetik errepidera eta 140 cm txorkoaren barru aldeko ertzetik hormara, pertsonak zirkulatzeko nahikoa leku bai egonik eta txorkoaren gainetik pasatu beharrik gabe, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Erreklamazioa gaitzestea zerbitzuaren funtzionamendua eta erorketaren artean erlazio kausalik ez dagoela ulertzen delako.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekursoak aditzera emanaz.

G) Mari Mar Rosales López andreak egin erreklamazioa Azkuene kalean erortzeagatik.

Ikusirik MARI MAR ROSALES LÓPEZ andreak egin erreklamazioa 2002ko uztailaren 13ko 00,30etan izandako erorketagatik Azkuene kalean oinez zihoala erreklamatzailerak dioten espaloiak jendez beteta zeudelako.

Kontuan izanik erreklamatzailerak erori zen galtzadaren eta estolda-taparen kontserbazio-egoera ezin hobea dela.

Kontuan izanik halaber aipatu lekua oinezkoak ibiltzeko dagoela egokitu eta horretarako espaloiak daudela aipatu bialaren ezker eta eskuineko aldeetan, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- MARI MAR ROSALES andreak egindako erreklamazioa gaitzestea ulertzen delako ez dagoela Administrazioaren ondare-erantzukizunik ez dagoelako lotura kausalik erorketa eta jasandako kalteen artean, nolahi ere erreklamatzaileraren beraren errua izanik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekursoak jakitera emanaz.

H) María Carmen Graña Martínez andreak formulaturiko erreklamazioa Marinelen kalean erorita.

Ikusirik M^a CARMEN GRAÑA MARTÍNEZ andreak 2002ko urriaren 8an egindako erreklamazioa, Trintxerpeko Marinelen kalean 2002ko abuztuaren 7an erorita izan zituen kalteak direla eta, non erreklamatzaileraren dituen 150,26 euro.

Kontuan izanik erreklamatzailerak ez dituela inoiz frogatu gertatuak berak kontaktzen dituen bezala, esan nahi baita, espaloian baldosak falta zirelako estropozo eginda erori zela, nahiz eta 2002ko irailaren 23ko diligentiaren bidez alega zezakeela eta dokumentuak aurkeztu, egokiak uste dituen informazioak eta baliatzeko asmoa duen frogatzen proposamena bitartekoak zehaztuz, lekukoaren deklarazioak barne.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- CARMEN GRAÑA MARTÍNEZ andreak formulaturiko erreklamazioa gaitzestea gertaerak ez direlako behar bezala frogatuak izan.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioak aipatuz.

I) Basilia Ortega Sanz andreak formulatu kalte-erreklamazioa Esnabide kalean erortzeagatik.

Kontuan izanik 2002ko uztailaren 29an ebazpen espedientearen instruktoreak formulatu zuela ebazpen-proposamena hitzez hitz honela dioena:

“ 2001eko ekainaren 20an udalean BASILIA ORTEGA SANZ andreak idatzi bat aurkeztu zuen. Bertan Pasaia Udalarari ondarezko erantzunkizunari buruzko erreklamazioa egin dio, 2001eko maiatzaren 15ean jasandako kalteen ordainetan, Esnabide kalean obrak egiten ari zirela, bertako espaloian agerian zegoen kutxeta batean erori egin baitzen.

2001eko irailaren 12an akordio bidez instruktorea izendatu zuten eta frogaldirako epea irekitzea erabaki zuten. Ondorengoak aurrera eramateko akordioa hartu zen:

a.- Irazusta udal aparejadoreari txostena eskatzea, istripua gertatu zen tokiko obra horiei buruzko babes, segurtasun eta balizamendu neurrien berri emateko. Horretarako obraren zuzendaritzak emandako aginduak bete ote diren aztertu behar zuen.

b.- Esnabide 6, 2.ean bizi den Francisca Michelena Aranguren lekukoari deklarazioa hartzea.

c.- Erreklamatzaileri jakinaraztea letratuarekin batera froga egitera joateko eskubidea duela.

Espedientean jaso dira:

a.- 2001eko maiatzaren 15ean udaltzaingoak egindako txostena. Argazkiak ditu eta 2001eko irailaren 18ko gehigarria du.

b.-2002ko maiatzaren 15eko udal aparejadorearen txostena.

c.- Francisca Michelena lekukoaren aitormena.

d.- Manuel Correa Suarez ez zegoen esandako helbidean.

GERTAKARIAK

Lekukoaren aitormenak dio, Ortega andreak ibiltzeko makulua behar izaten duela eta nahiko baldar ibiltzen dela. Esnabide kaleko espaloian obretan ari zirela mugatutako gun batean sartu zen, hesien arteko bitarteko batetik barrena.

Udal aparejadoreak txostenean agertu du Ortega andrea beste toki batetik abia zitekeela atarira. Argazkietan agertzen denez, tokia nahikoa balizatuta zegoen eta bertan obrak zirela ohartarazten zen.

OINARRI JURIDIKOAK

Zerbitzu publikoen galera bategatik administratuek minen bat edo kalteren bat jasaten badute, herri administrazioek euren gain hartu behar dute ondarezko ardura hori.

Kasu honetan, ordea, ez zaio Pasaiako Udalari ezeren erantzukizunik egotzi behar, erorketa udaleko jardueretatik kanpo gertatu baita.

Zainketa ezagatik edota adierazgarri ezagatik ere ezin izango da erantzukizunik leporatu, balizamendua nahikoa deigarria baitzen eta agerian uzten baitzuen arriskua bazela.

Erreklamatzailleak ez zituen bete obraren zuzendaritzak oinezkoak pasatzeko jarritako aginduak, beraz, ezin izango dio udalari erorketaren ondorioz izandako urratuaren errua leporatu.

Horiek guztiak kontuan izanda, honakoa da

EBAZPEN PROPOSAMENA

2001eko maiatzaren 15ean BASILIA ORTEGA SANZ agerian zegoen kutxeta batean erori zen. Pasaiako Esnabide kalean gertatu zen obretan ari zirela, espaloia egiten ari zirenean. Gertaera horren ondorioz erreklamazioa aurkeztu zuen udalean. Behin erreklamazioa aztertu ondoren, administrazioaren jardura eta erreklamatzaillearen urratuen artean ez dagoela loturarik ikusten dugu. Horiek horrela, honako akordioa hartu dut;

AKORDIOA

1.- BASILIA ORTEGA SANZek egindako ondarezko erreklamazioa ezestea.

2.- Honako hau interesunari jakinaraziko zaio, HAMAR EGUN NATURALeko epean ongi derizkion alegazioak egin ditzan.”

Gertaturik hurrenez hurren abuztuaren 2 eta 12ko datadun sarrerekin Udal honetan Jose Ignazio Mujika Brunet abokatuak sinatutako bi idazki jaso zirela non esaten den despatxuko bere laguna den Andoni Unanue Murgiondo jauna, espedientean Basilia Ortega Sanz andrearen ordezkaria, oporretan aurkitzen zela eta eskatzen zela abuztua ez konputatzeko ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko epeak konputatzeko orduan.

Ikusirik Basilia Ortega Sanz andrearen izenean Andoni Unanue Murgiondo jaunaren alegazioen idazkia 2002ko irailaren 9koa dela.

Kontuan izanik Herri Administrazioen Erregimen Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 47. artikularen arabera bertan ezarritako hitzak eta epeak eta beste lege batzuek ere agintzen dietela Herri Administrazioiko Aginteei eta Pertsonalari gaiak izapidatzeko orduan eta baita interesatuak dauden gutzietan ere.

Kontuan izanik Euskal Herriko Erkidego Autonomoko jaiegun eta astegunen egutegian ez dela agertzen abuztua gaitasungabetzat.

Gertaturik, beraz, alegazioak legez ezarritako epez kanpo aurkeztu zirela eta hala ere kontuan hartuko direla zeren eta defentsa eskubidea interesatuaren bermea baita, edozein kasutan ere lehen aipatu ditugun arazo formal edo prozedimentaletan nagusi agertu behar dutenak.

Ikusirik, beraz, Basilia Ortega Sanz andrearen ordezkariaren aurkeztutako aurreko alegazioak, non salatzen baitira prozedurazko okerrak defentsarik eza eragin dutenak, hau da, espedientearen bistara arteko instrukzio jarduerak ez ezagutzea, espedientea froga-proposamenera atzeratzeko eskaerarekin frogatikaren praktika ezin burutzea eta aparteko frogaren periodo bat irekitzeko eskaerarekin, non proposatzen den ondorengo lekukoaren, hots, Frantziska Mitxelena Aranguren eta Manuel Correa Suárez jaun-andreen testigutzak jasotzea proposatzen duen, hauen deklarazioak konstaraziak daudelarik aktuzioetan. U-13 eta U-43 agenteei deklarazioak hartzea, CONSTRUCCIONES DUMBOA-ko teknikariarena eta Segurtasun eta Osasuneko Koordinadorearena, eta baita dokumentala ere, hots, nahi eta nahi ez erredaktatu behar izan zen obraren Segurtasun eta Osasuneko Plan Prozedura ekartzea.

Bestalde, gaiaren funtsari gagozkionez, alegatu da Udaltzainburuak parte hartu zuten agenteak burutu zutenen "baliogabetzea" deituaren desagokitasuna, halaber alegatu da seinalizazioa ez zela behar hainbatekoa eta egokia zeren eta ez baitzegoen beharrezko neurririk hartuta obraren zonara erreklamatzailaren igarotze fisikoa eragotziko zutenak, non kutxeta bat baitzegoen agerian.

**ETA
EZ**



Kontuan izanik defentsarik ezaren alegazioa gaitzetsi beharra dagoela zeren eta kontsiderazioan edukirik ebazpen-proposamenaren aurka aurkeztutako alegazioak, alegaturiko prozedura-okerrak zuzendutzat eman behar dira eta erreklamatzaillearen defentsa-eskubidea exekutatu.

Froga-proposamenari buruz ez beharrezkoa kontsideratu da zeren eta eztabaidagaia obra-zonaren inguruan jarritako babes edo segurtasun neurrien nahikoa edo ez nahikoan zentratzen baita. Ez dago ez-adostasunik edo iluntasunik segurtasun horren aipatu neurriak zehazten zituzten elementu konkretuen baitan, zeren eta espedientearen agertzen baitira gertatuak jazo ziren momentuak egindako argazkiak, hau da, obren esparrua ixten zuten elementuen froga objektibo eta eztabaidaezina. Beraz, baloratzeko gaia izango da aipatu itxitura, osagaiak kontuan harturik, ea nahikoa diren ala ez, erreklamatzailleak eskatzen duen bezala.

Lekukotzei buruz, hauek ez dira kontuan edukiko zeren eta frogatutzat jotzen baita erortze-egintza eta ez da beharrezkoa.

Gertaturik erreklamatzailleak aurkeztu dituen alegazioetan ez dagoela espedientearen inktoreak eta Udalak erantzukizun zibilaren poliza kontratatua zeukan Cía. SEGUROS CASER-rek aurkeztutako ebazpen-proposamena baliogabetuko luketen arrazoirik, erreklamatzaillea bera izan delako oinezkoak igartzeko obra-zuzendaritzak ezarriak zeuzkan instrukzioak bete ez dituen, zeren eta zegoen balizamentua bai baitzen behar hainbateko deigarria eta obrak zeudela adierazten baitzuen.

Honela bada, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Basilia Ortega Sanz andreak egin ondare-erreklamazioa gaitzestea ulertzen delako ez dagoela Administrazioaren funtzionamenduaren eta erreklamatzailleak jasandako lesioen artean lotura kausalik akordio honen azalpen-partean jasotako arrazoiaren arabera.

BIGARREN.- Ebazpenaren berri Basilia Ortega Sanz andrearen ordezkari jakitera ematea legizkiokeen errekurtsioekin.

- Gaizerrendatik at eta bertan sartzea aurrez berronetsi ondoren bertako zinegotzien aho batez hurrengo akordioa onartu da:

16.- “Antxo Iparraldea 01 (C-7) Hiri Area berriro urbanizatzea” obraren 3. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ONTZAT EMATEA hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 3.

Obra: “Antxo Iparraldea 01 (C-7) Hiri Area berriro urbanizatzea”.

Obra-zuzendariak: Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea), Igor Urrutia (Asmatu) eta Juan Karlos Lapazaran (Arkitektoa).

Enpresa kontratista: URBYCOLAN, S.L.

Zenbatekoa: EHUN ETA HAMAR MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAIIKA EURO ETA HAMA-BI ZENTIMO (110.811,12 euro).

Disposamenduaren kargua: D-401/02.

17.- “Trintxerpeko Karmengo Amaren Eskoletan leiho handiak jartzea” obraren 1. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Obra eta Zerbitzuen Inspektore-buruak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ONTZAT EMATEA hurrengo ziurtagiria:

zka.: 1.

Obra: “Trintxerpeko Karmengo Amaren Eskoletan leiho handiak jartzea”.

Enpresa kontratista: CARPINTERIA DE ALUMINIO TRINTXERPE

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMAIIKA MILA ZORTZIEHUN ETA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HAMABOST ZENTIMO (51.814,35 euro).

Disposamendu kargua: D-625/02 eta D-626/02.

18.- “Pasaiako Badia” IV. bideo laburra erakusketa.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Kultura eta Hezkuntzaren Udal Batzorde Informatiboak 2002ko irailaren 20ko diktamenaren bidez emandako proposamenez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Trintxer Kulturalari 3.000 euroko subentzioa ematea “Pasaiako Badia” IV Bideo Laburraren Erakusketa.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsuak jakitera eman ez.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A/1206/02-ren kargura.

19.- Obra-lizentzia, Mendiola, 9.

Ikusirik Paloma Barrientos Rey andreak Mendiola Bideko 9ko Jabekideen ordezkartzan egindako eskaera Mendiola Bidean doan bialaren eta Ulia etorbideko 20 eta 22ko eraikinen atze aldeko patio pribatuaren arteko ezpondan betelanak egiteko.

Ikusirik 2002ko urriaren 16an Udal Zerbitzu teknikoek luzatutako txostena, non informatzen baita eskaturiko lizentziaren aurka ondorengo arrazoiak direla eta:

- 1.- Kaleari izena ematen dion bialaren alde batean azalera horizontala lortzea nahi duela eskaturiko betelanak, hor daudelarik ezarriak arropa eseki eta lehertzeko esekitokiak eta sokak.
- 2.- Hauek ezarrita dauden zona jabetza publikoa dela, ez dagoelako baimenik bertan esekitokiak eta sokak jartzeko.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Paloma Barrientos Rey andreari Mendiola Bideko 9ko Jabekideen izen eta ordezkartzan obra txikiak egiteko lizentzia ukatzea Mendiola Bidean doan bialaren eta Ulia etorbideko 20 eta 22ko eraikinen atze aldeko patio pribatuaren arteko ezpondan betelanak egiteko.

BIGARREN.- Behin jakitera emanik udal eskubideak likidatzea.

HIRUGARREN.- Ebazpenaren berri ematea interesatuei legozkiekeen errekurtsuak seinalatuz.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, 19:00etan batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkariak ziurtatu, sinatu dugularik.

**ETA
EZ**

